

**HIZKUNTZAZ JABETZEN**  
**(0-6)**

**XVI. Jardunaldiak**

© Mendebalde Euskal Kultur Alkartea

ISBN: 978-84-15508-08-3

Lege Gordailua:

Diseinua, maketazioa eta argitalpena: Erroteta - [www.erroteta.com](http://www.erroteta.com)

Inprimaketa:

Printed in UE.

**HIZKUNTZAZ JABETZEN**  
**(0-6)**

**XVI. Jardunaldiak**



## AURKIBIDEA

Aurkezpena. Kaxildo Alkorta .....	7
Hizkuntza proiektua Olatz Zabalondo .....	9
Allende Salazar ikastetxeko Hizkuntza proiektua Marian Araucua .....	53
Fonologiaren, lexikoaren, morfologiaren eta sintaxiaren garapena haur euskaldunengan Andoni Barreña .....	67
Diskurtso gaitasunen jabekuntza euskara H2 duten haurrengan: ipuin-kontaktak aztergai. Ibon Manterola.....	109
Hizkuntza idatziaren ikaskuntza Haur Hezkuntzan: Sekuentzia Didaktiko baten proposamena Idurre Alonso, Marian Bilbatua eta Diego Egizabal.....	159
Interakzioaren garrantzia euskararen sarrera goiztiarrean Maidor Huarte eta Jone Ozerinjauregi.....	183
Komunikazio gaitasunetik kultura arteko komunikazio gaitasunera: baliabide didaktikoak Iñaki Gaminde, Aintzane Etxebarria, Urtza Garay eta Asier Romero.....	209
Hizkuntza haur hezkuntzako gaitasunak lortzeko bide Sabin Gorrotxategi.....	251
Herria euskalduntzen “Euskara da gure hizkuntza” Patxi Uribarren.....	267



## Aurkezpena

*Kaxildo Alkorta*

Umea jaio da, ekarri dabe bizitzara, ez daki non agertu dan, bizitza zer dan be ez, ezta zer tratu emongo deutson be etorkizunak. Gauzak holan esanda, badirudi mundualdi iluna dauela aurrean. Beharbada bai, agian ez. Geu be hortik pasatakoak gara eta hamen gagoz; hortik atara kereizak.

Kontua da bizitzak bere legeak ezarriko deutsozala umeari be, markatutako esparruan eta jatorkonari begira ibili beharko dauela eta, horretarako, gaitasun batzuk bereganatu behar izango dituala nahitaez. Etxean, kalean, jolas-lekuan, ikastetxean, lantokian... , horreetan lortuko ditu bizitzan baliatzeko beharrezko gaitasunak eta trebetasunak, leku bakoitzean honelakoak edo halakoak, alkarren lagun diran konpetentziak danak be. Txiki-txikitatik hasiko da horretan, eta bizitza guztian jarraituko: txalupa barria, uretara botaten danean, kulunkari ekiten deutson eta lehorrera atara arte geldituko ez dan legez, jaiobarriak esperientzietan ugerrean hasi eta halan jardun beharko dau beti.

Sasoian sasoikoak agintzen dau etorkizunak ekarriko deuskuzan erronkei aurre egiteko gaitasunak lortzerakoan be. Batetik, edozelako gaitasuna lortzeko ezinbestekoa dogu hizkuntza, hizkuntza garatua, eta, bestetik, argi dago hizkuntza bizitza osoan baliatzeko dogula eta, beraz, hasieran ahalik eta egokien geureganatu behar dogula, nagusitakoan garatzen jarraitu behar badogu be. Haurtzaroko hizkuntza prozesuaz –0-6 urte bitarteko umeen hizkuntza prozesuaz– dira, hain zuzen, aurtengo jardunaldiak, eta liburu honetan jasota daukaguz hizlariak horretarako prestatutako lanak:

Jabetuta zelako garrantzia dauen hizkuntzak norbanakoaren, gizartearen eta herriaren bizitzan, hizkuntza proiektuaren beharra ikusita, ardura handiz eta adorez lan egin da urteotan ikastetxeetan, batez be ikastoletan,

hainbat hariz bilbatutako proiektu hori osatzeko. Hainbat hariz bilbatutako proiektua dinogu, proiektu barria, zeren-eta helburua zaharra bada be-  
-umea euskalduntzea- gaur eguneko gure gizartea ez da orain gitxi arte-  
koa bera, asko eta asko aldatu jaku eta, ondoren, geletako ikasleak be ez  
dira orain dala urte batzuetakoak lakoak eta, beraz, eskolak ezin dau bere  
hartan jarraitu, egoera barrira jarri beharra dau.

Etiket euskera ekarrien umeak etozan sasoian, hareei irakasteko pla-  
nak prestatu ziran; laster, zabaldu eta egokitu egin behar izan ziran etxe-  
tik erdaldun (gaztelaniadun, artean) etozanentzat; urte batzuk pasata,  
ikasle barri asko ditugu urruneko hizkuntza, kultura, erlijino eta arrazeta-  
koak. Horrek eleaniztasuna ez eze, kulturantzitasuna eta arraza aniztasuna  
be bultzatzera behartu dau eskola.

Lan neketsua, ez berehala lortzekoa; gogoz eta bihotz zabal jardun  
behar dabe irakasleek, batetik euren komunikazio gaitasuna kulturarteko  
komunikazio gaitasun bihurtzeko; bestetik, hainbat moldetako ikasleak  
dagozan hezkuntza gelan hizkuntzaren erabilera bermatzeaz gain, hiz-  
kuntza lantzeko; eta, ikasle desbardin beharrak aseko badira, hizkuntza  
zelan irakatsi planifikatzeko eta horretarako egokia den laguntza mota  
aukeratzeko.

Proiektua bizia denez, eskola beti dabil aztertzen, hausnartzen, eraba-  
giak hartzen, egokitzen, aldatzen, bai ahozko hizkuntzari bai idatzizkoari  
jagokonean. Zenbat lan egin behar dan!: hizkuntzaren erabilera intentsi-  
boa ziurtatu, etiket erdaldunak diranak hizkuntzan murgildu, hizkuntza  
erabilera ezbardinek alkarri eragiten deusien egoeretan irakasleak erabili  
leikezan estrategiak ikasi, ezaugarri afektiboekin lotutako emozinoak eta  
jarrerak perzibitzeari eta ezbardintzeari garrantzia emon; oinarrizko iriz-  
pideak eta ibilbidea markatu eta aztertu, lan egiteko tresnak edo baliabi-  
de didaktikoak erabagi, datuak hainbat ikerketa luzetatik (umearen gara-  
pena aldian-aldian begiratuta) eta zeharkakotatik jaso (milaka umeren une  
bateko ekoizpenetatik), umeen fonologiaren, lexikoaren eta morfologia-  
ren garapenari jarraipena egin; hizkuntza erregistroak zaindu, kontaketa-  
gaitasunak aztertu... Erlauntza barruan badagoela jarduna!